

# MARRUBI ZURIAK

X. KINTANA

Euskal Herrian berez hazten den basamarrubi arrunta *Fragaria vesca* deritzona da, fruitu gorri, usaintsu eta ttikiak ematen dituena. Beronen bizilekua bide bazter, oihan eta harriarte buztintsuak izaten dira. Honaino ez da ezer berririk.

Duela zenbait urte, baina, Bilbon, Artxanda mendiko aldapan, Guardaviñas (sic) izeneko baserrian, Santo Domingo tontor ondoan, marrubi moeta ezberdin batzu, ale zuridunak, ikusi nituen. Hasieran ongi helduak ez zirelakoan nengoen, bainagero, ukitu eta dastatuz gero, ongi zorhiak zirela konturatu nintzen. Haien ondoan, gainera, beste marrubi batzu, gorriak, hazten ziren, eta elkarren arteko berezitasunez laster ohartu nintzen.

Marrubi gorrien gaineko "hazitxoak", halaber, gorriak izaten dira beti. Marrubi zurienak, aldiz, hori-berdeskak gertatzen. Fruitua, gainera, ez zitzaien berauei inoiz gorritzen; beti zuri zirauen, lehorre edo usteldu artean. Landarearen kolorea berde argiagoa zen, marrubi normalen berde ifunera sekula heldu gabe.

Etxera landare batzu ekarri nituen, bai eta haziak erein ere. Guztietatik ondorio berbera atera nuen: zuritasuna berezkoa zuten, eta ez eguzkirik edo heldutasun faltaz kausatua.

Hainbat liburu aztertu ukan ditut eta botanikariei galde egin ere bai, baina inork ez dit marrubi estrainio horien berririk eman. Ingalaterrako Erret Lorategira ere idatzi dute eta hor ere ez dakitela erantzun didate. Mutakuntzaz sorturiko espezi edo arraza berri baten aurrean al gaude ba?

Zenbat neurri, bada ez bada ere, hartu ukan ditut. Marrubi zuriak berez hazten ziren tokia, egia esan, ez da oso zabala eta handik kanpo, ikusi dudanez, ez daude hedaturik. Guztira 20 metrotako erradio batetan hazten dira. Ematen duenez, handik oraindik zabaldu gabeko moeta berri bat da. Bilbo ingurua, alimaleko etxegintzagatik eta giroaren degradapenagatik, arriskutsua da, oso, izaki bizientzat. Horrexegatik, marrubi zuri horietako landare mordo haundi batsustrai eta guzti, tokian bildu eta beste leku segurago batzutaraz eraman nuen, bertan landatuz. Honez gero espezi hori aski zabaldua dut Nabarrizen ( Gernikan), aitagiharrebaren baserrian eta inguruko mendietan. Bertan ere ondorio bera: beti marrubi zuriak ematen dituzte. Landarea, *Fragaria vesca* arruntaren antzera, aberatsa da kimu berritan eta laster hedatzen da stoloi bidez. Galtzeko arriskurik ez, beraz.

Kontua da, dena den, ez dudala oraindik jakin marrubi moeta hori beste nonbait ere ezaguna ote den ala, susmatzen dudanez, Bilbo inguruko mutakuntza pitxi bat. Bartzelonako biologo lagun bati zenbait landare eman diot, berak zientifikoki azter ditzan. Kondizio hauk ipini dizkiot, dena den, berak gogoz onhartuak: Landarearen deskribapen zientifikoa, batera, katalanez eta euskaraz egitea, eta zientzi izena ( espezi edo arraza berria balitz) honela jartzeko : *Fragaria* euskara ( edo eta *Fragaria vesca*, v. euskara, arraza izanez gero).

Landareekin dabilzan esperimetak aurrera doaz eta ba liteke hemendik denbora gutira Elhuyar-en azterketa horien ondorioak azaltzea. Ongi irtenez gero, gure Herriak bere izena landare bati emanen lioke, euskaldunok botanikari egindako lehen emaitza.

